

NIRE HIZKUNTZA HISTORIA LH 5-6



Familiaren eta bizitokiaren arabera ezberdina da pertsona bakoitzaren hizkuntza-historia.

HELBURUA

Saioaren helburua da ikasleak ohartzea hitzun bakoitzak baduela bere hizkuntza-historia, askotako egoerak daudela eta merezi duela besteen historiak entzutea eta ulertzen saiatzea.

EGITEKOAK

- Lau ikasleri testu bana emanen zaie eta ozenki irakurriko dute:
 - **Iruñeko Ane:** "Nire lehenengo oroitzapena da nire amak "Isil Isilik dago" kanta abesten zidala.

Amak euskaraz hitz egiten dit beti eta aitak portugesez. Asko gustatzen zait portugesa hitz egitea oporretan familia ikustera joaten garenean.

Ikastolan hasitakoan nire lagun gehienek gaztelaniaz bakarrik hitz egiten zutela konturatu nintzen. Baina gero euskara ikasi zuten; batzuetan euskaraz eta beste batzuetan erdaraz egiten genuen gure artean."

- **Arangurengo Mikel:** "3 urterekin eskolan hasitakoan klasean sartu eta hor zegoen maistrak oso arraro hitz egiten zuen. Etxera joandakoan amari esan nion maistra horrek ez zekiela hitz egiten. Dena keinuz eta mugimenduekin azaltzen zuela eta ez niola ezer ere ulertzen, eta ez nuela eskolara joan nahi. Laster konturatu nintzen gero eta gehiago ulertzen niola. Oso ongi pasatzen nuen nire lagunak ere nirekin batera euskara ikasten ari zirelako."
- **Arizkungo Gorka:** "Nere amatxi eta aitatxiren artean eskuaraz aritzen ziren, eta herrien ere, ferietan eta hola batzuetan eskuaraz aditzen zen. Etxean ere eskuaraz egin izan dugu gehienbat, baina gero karrikarat atera eta erderaz egiten genuen.

Gurasoek erraten zidaten eskuara jakitea ongi zela, baina arras inportantea dela erderaz ongi solastea, ze Iruñerat joaterakoan ongi egiten ez baduzu irri egiten dizute."

- **Arbizuko Saioa:** "Gure herrian, etxean beti euskeraz hitz egin dugu. Etxean euskaldunak garela aipatzen da eta kalean denok euskeraz egiten dugu.

Kanpotik etorritakoek, Altsasutik o Iruñetik, hoiek bakarrik egiten dute erderaz.

Gu oso pozik gaude lagunen artean euskeraz egiten, hitzak sortzen, txistiak eta pasadizoak kontatzen. Ikusten duzuen bezala gure hizkera ere badaukagu. Askotan ez dakigu ongi ari garen, ze gurasoek esaten digute hori ez dela hola esaten eta holako kontuak, baina guk hola ongi pasatzen dugu.”

- Jarraian ikasleei eskatuko zaie **norberaren historia edo biografia linguistikoa** idazteko (5-10 lerro). Horretarako galdera hauek egingen zaizkie:
 - Zenbat hizkuntza hitz egiten dituzu? Eta zure familiakoek?
 - Etxean euskaraz hitz egiten zenuen eskolan hasi aurretik edo eskolan ikasi duzu euskara?
 - Orain, norekin eta non egiten duzu euskaraz?
 - Zein da zure lehenengo oroitzapena euskararekin lotua? Kanta bat, ipuin bat edo beste zerbait? Ba al duzu bitxikeriaren bat kontatzeko horren inguruan?
- Binaka jarrita, eskatu batak besteari kontatzeko idatzi dutena.
- Bukatzeko, talde osoaren elkarrizketa sustatu, aipa dezaten zer den entzundakotik deigarria egin zaiena.

IRAUPENA

Saio bat
